

Endibiak taldea: Telmo Irastorza, Nagore Irazustabarrena, Nora Labaien, Lia Landazuri eta Berenize Lavin

GURE ETXEKO ISTORIOAK

IRUDI PANORAMIKOA: Etxebizitza eraikin batean planteatuta dago, non ikastetxe bateko haur ezberdinak bizi diren, familia egitura, kultura eta egoera sozioekonomiko ezberdinak egonik, atariz-atari bakoitzaren goizeko errutina agertuko da, eskolara joan aurretik egiten dutena.

FAMILIA MOTAK:

1. SOLAIRUA: **Belaunaldien arteko familia:** haurra + aitona
2. SOLAIRUA: **Familia homoparentala:** 2 ama + semea
3. SOLAIRUA: **Gurasoak gor-mutuak diren familia:** aita eta ama gor-mutuak eta seme-alaba
4. SOLAIRUA: **Immigrante familia:** ama eta 3 seme/alabak (marrokiarrak)
5. SOLAIRUA: **Guraso bananduak:** aita + semea
6. SOLAIRUA: **Gurpildun ahulkian dagoen senitartekoa:** gurpildun ahulkian dagoen aita, ama, 2 alaba eta 3 seme
7. SOLAIRUA: **Gurasorik gabeko familia:** anaia (handiagoa) + arreba
8. SOLAIRUA: **Dirudun familia:** aita + ama + 3 seme/alaba

BIDEOAREN EGITURA

Hasieran, eskolako gela batean haur bat azalduko da, bidioan zehar ikusten joango garen haurrekin eta irakaslearekin batera. Haur hau jostailuzko eraikuntza batekin jolasten ibiliko da eta soilairu bakoitzeko lehioa irikitzen duen bakoitzero, gelako haur bakoitzaren goizeko errealitatea ikusiko du, hau da, nolakoa den bere etxea, norekin bizi den, nork esnatu duen, zer gosaldu duen... Hauek dira solairu bakoitzeko egoera:

1. **SOLAIRUA:** Familia modesta. Bizimodua sinplea da; aitonak pentsioa jasotzen du eta haurra zaintzen du egunez. Etxean janari tradizionala prestatzen dute, eta askotan denbora elkarrekin pasatzen dute. Ez dute luxurik, baina maitasuna eta elkertasuna ugari dute.
 - a. **Etxea:** Etxe zaharra eta xumea da, altzari zaharrekin eta oroitzapenez betea: argazkiak, brodatutako mahai-zapiak eta egurrezko altzari klasikoak. Jostailu gutxi dago, baina haurra eskulanekin eta aitonaren ipuinekin entretenitzen da. Salan telebista zahar bat dago, eta beti dago manta bat sofaren gainean.
2. **SOLAIRUA:** Bi amak lan egiten dute eta klase ertainetik gertu daude. Etxea moderno eta txukuna da. Janari osasuntsua prestatzen dute eta produktu ekologikoak erosteko ohitura dute. Semeak jostailu berriak eta kultur jarduerak egiteko aukera dauka.
 - a. **Etxea:** Etxe txukuna eta praktikoa da, estilo nordikoarekin apaindua. Ereku irekiak eta argitsuak dituzte, liburuak eta landareak ez dira falta. Semeak bere gela pertsonalizatua dauka: kolore biziko paretak, irudiak eta mahaia

ikasteko. Teknologia moderatua erabiltzen dute: ordenagailua, wifi eta argi-leku atseginak.

3. **SOLAIRUA:** Ekonomikoki ondo daude; Gurasoek lanpostu egonkorak dituzte. Alabak gela propioa dauka eta teknologia berria erabil dezake etxean. Asteburuetan aisialdi-jarduera anitz egiten dituzte. Janaria anitza da, jatetxeetara joatea barne. Haurrak eskolan soilik hitz egin dezake euskaraz, izan ere, gurasoekin zeinu hizkuntzan hitz egiten du
 - a. **Etxea:** Diseinu modernoko apartamentua da, espazio zabalekin eta kristalezko ateekin. Etxean azken belaunaldiko tresnak dituzte. Alabak gela zabala dauka, bere liburutegia, irudi gogokoenak eta ordenagailu eramangarri batekin. Etxea garbia eta ordenatua dago eta etxeko timbrea zein iratzargailua argi bidez dute.
4. **SOLAIRUA:** Ama bakarrik da eta lanaldi zatituan lan egiten du. Etxeko baliabideak mugatuak dira, baina janaria kulturala eta etxean egindakoa da. Laguntza sozialak jasotzen dituzte eta komunitatearen laguntza garrantzitsua da haientzat.
 - a. **Etxea:** Etxe txikia baina kolorez eta bizitzaz betea. Estalki koloretsuak, alfonbrak eta koraneko esaldiak dituzten apaingarriak daude. Logelak partekatuak dira, eta jostailuak banatuta egoten dira txokoetan. Sukaldea beti dabil lanean: usain biziko janariak eta ama-hizkuntzako musika entzuten da sarri.
5. **SOLAIRUA:** Aita alokairuan bizi da, eta lana dauka, baina egoera ekonomikoa ez da erraza. Aitak semea zaintzen du eta janari sinpleak prestatzen ditu. Aste batzuetan semea amaren etxean egoten da.
 - a. **Etxea:** Etxebizitza txikia da, alokairuan. Altzari sinpleak eta funtzionalak dituzte, batzuetan bigarren eskukoak. Gela partekatuak izan daitezke, eta espazio gutxi dago aisialdirako. Telebista bat eta mahaigaineko ordenagailu zahar bat dituzte. Giro lasaia baina batzuetan tentsioduna da, batez ere lanaldien ondoren.
6. **SOLAIRUA:** Aitak duela hilabete batzuk kotxeko istripua eduki zuen eta horregatik orain etxean egoera berrira egokitzen ari dira. Amak ordu luzez egiten du lan etxetik kanpo eta horregatik aita egoten da denbora asko hurrekin. Etxeak egoera berrira egokitzen saiatzen ari dira, baina batzuetan, horren ondorioz liskarrak edukitzen dituzte, izan ere, askotan ez dakite ondo nola lagundu eta lehen egiten zituzten gauza batzuk egiteari utzi diote, adibidez, haurrak eskolara bakarrik joaten hasi dira, ardura gehiago hartzen hasi dira, sukaldatzen ikasten ari dira...
 - a. **Etxea:** Etxea eraldatzen hasi dira pixkanaka: ateak zein paretak bota, oztopatzen zuten objektu asko lekuz aldatu, bainuontzia beharrean dutxa ipini... Baina oraindik gauza asko aldatzeko daude.
7. **SOLAIRUA:** Anai nagusia arduradun bihurtu da gurasorik gabe. Egoera zaurgarria da: laguntza publikoak jasotzen dituzte, eta janaria batzuetan doako jantokitik jasotzen dute. Nahiz eta zaila izan, elkarri eusten diote eta ahalegin handia egiten dute.

- a. **Etxea:** Etxea zahartua eta baliabide gutxikoa da. Logela bakarra dute, eta oheak partekatzen dituzte. Altzari gutxi dago: mahaia, bi aulki eta armairu txiki bat. Sukaldeko apalak hutsik egon daitezke sarri, eta giroa tristeza izaten da batzuetan, baina anaiak ahalegina egiten du arreba babesteko eta etxea bizigarri bihurtzeko.

8. **SOLAIRUA:** Maila ekonomiko altuko familia da. Etxea handia eta moderno da, zerbitzu pribatuak eta aisialdi jarduera ugari dituzte. Elikadura oparoa eta osasuntsua dute, eta bidaiatzeko edo ikasketak ordaintzeko baliabide asko dituzte.

- a. **Etxea:** Etxe handia eta moderno-moderno da: bi bainugela, logela pribatuak, eta jolasteko gela bat barne. Dekorazioa dotorea da: artelanak hormetan, altzari diseinatzaileak eta domotika sistema. Sukaldea ekipamendu osoarekin dago eta janaria beti freskoa eta anitza da. Gela bakoitzak bere ordenagailua eta entretenimendu-sistema dauka.

Solairu bakoitzean ikusten den irudia haurra esnatu, gosalduta eta motxila hartzen duenarena da. Haur bakoitzak, koloretako motxila bat edukiko du, aniztasuna errazago islatzeko.

Azkeneko bidio zatian hasierako gelara itzultzen gara non bideoa haur bakoitza errealitate guztiz ezberdinekin gelan aurkitzen diren.

FORMATUA: irudiak + bideoak + ahotsa + musika